

EGUNERO PIXKA BAT HILTZEN

Zaballako kartzelan aurten hildako lau presoeri buruzko albisteeek mahai gainera ekarri dituzte berriro espetxe sistemaren inguruko kezak. Droga trafikoarekin eta lapurretekin lotutako zigorrak betetzen ari dira preso gehienak; asko, osasun egoera konplexu eta kaskarrean.

BERRIA (MAITE ASENSIO).- Hitzez adierazten zaila den ezinegona, pena handia eragiten diete presoeri heriotzei buruzko albisteei kartzelaren inguruan dihardutenei; eta aurten, lau aldiz irakurri dituzte halako larriburuak. Urtariletik apirilera, Zaballako espetxean (Araba) kondena betetzen ari ziren lau pertsona hil ziren. Laurak gizonezkoak, eta haietako hiru, 30 urtetik beherakoak; datu ofizialen arabera, gaindosiagatik zendu zen bat, eta beren buruaz beste egin zuten bik —laugarrenari buruzko informaziorik ez dago—. Heriotza horiek agerian utzi dute kartzelaren opakutasuna eta arrotasuna. «Lau preso hil dira, eta Osakidetza ez du ezer esan, nahiz eta espetxeetako osasun arretaren eskumena harena den», deitoratu du Nahia Aiak, Osabideak elkarteko medikuak. «Imajinatu dezakegu beste eremu batean halako zerbaite gertatzea eta alarmak ez piztea?».

Eragileen artean kezka handitu egin da: zer gertatzen ari da kartzelatan? «Presondegiak mintzo gara halako gertakari latzak izaten direnean, baina preso dauden pertsonak egunero pixka bat hiltzen dira, desozializatu; bizitzaren gustua galtzen dute», erantzun du Gabi Mouesca OIP Espetxeen Nazioarteko Behatokiko presidente ohiak. Hamazazpi urte egin zituen Frantziako kartzelatan, Iparretarrak taldeko kide izateagatik. «Ohartu naiz zer zen egiazko kondena: denbora pasatzea presondegian; ezer egin ez, ezer izan ez». Zigor laburragoa bete zuen Martinak —ez da benetako izena—: sei gramo kokaina atzeman zizkioten, eta lau urteko kondena ezarri zioten trafikoagatik; bi urte egin zituen Martutenen (Donostia). «Konfinamendua da kartzela. Etor dakizukeen egoerarik okerrean: ez duzu ezertarako askatasunik. Itogarria da».

Gaur egun, 1.700 pertsona baino gehiago daude Euskal Herriko kartzelen ardurapean. Zigor zuzenbidearen katean, espetxea da azken baliabidea, baina printzipio hori ez da betetzen, Rafa Sainz de Rozasen aburuz. EHUko Zigor Zuzenbideko irakaslea da, eta urteetan EAEko Arartekoko Justizia eta Espetxe arloko koordinatzailea izan da. Espainiako Estatuko datuei erreparatu die: «Delitu tasa Europako batezbestekoa baino txikiagoa da, baina espetxeratze tasa, Europa mendebaldekoa baino askoz handiagoa. Horrek adierazten du hemen gehiago eta gehiegi erabiltzen dela askatasun gabetzea arazo berei aurre egiteko». Bat etorri da Carmen Gonzalez, presoak laguntzeko Bizkaian dagoen Zubiko elkarteko abokatua: «Erraz saltzen da ideia bat: segurtasuna handitzeko, zigorrak handitu behar direla. Baina kartzelak betetzeak ez ditu delituak saihesten».

Kondenak aztertuta egin du baieztapen hori. Gizonezko presoeri %60 baino gehiago bi delitu moldeagatik zigortu dituzte: jabetzaren aurkakoak —lapurreta— eta osasun publikoaren aurkakoak —droga trafiko—; ondoren, nagusi dira bide segurtasunaren aurkako delituengatik eta genero bortxagatik kartzelatuak, baina neurri txikiagoan. «Gehienak pobreziarekin, droga mendekotasunarekin eta bazterketarekin lotuta daude, eta hori aurrez landu behar da. Bestela, jende batek kartzelara iristeko arrisku handia izango du: ez dute inoiz babesik izan. Zauria saihestu behar da, ez gero benda jarri».

Pobreziaren isla

«Klase afera» argi ikusten du Mouescak: «Badakigu pobreak sartzen dituztela presondegira. Hirugarren eta laugarren munduak daude hor: kanpoko eta gure gizarteko pobreak. Presondegian argi ikusten da gerra sozial baten errealitatea».

Emakumeak gutxiengoa dira Euskal Herriko kartzeletan: %9 inguru; Europako batezbestekoaren (%5) gainera dago andrazkoen preso tasa ere. Espetxeak, ordea, gizonentzat pentsatutako eta eraikitako espazioak dira, eta andreentzako eremurik ez dago zentro guztietan. Emakumeak hartzen dituzte Martutene, Zaballa eta Iruñeko espetxeek, baina Euskal Herrian ez dago amentzako modularik, beraz, kanpoko kartzeletara mugitzen dituzte haurrak dituztenean. Iparraldeko emazteek Euskal Herritik kanpoko espetxeetan bete behar dute kondena beti.

Droga trafikorekin lotuta zigortzen dituzte andreak batik bat. Bi soslai gailentzen dira, Gonzalezen arabera: «Batetik, droga mendekotasun handiak dituztenak; fisikoki hondatuta iristen dira, eta oso bizitza konplikatua dituzte: abusuak, tratu txarrak... Eta bestetik, trafikoan harrapatutako atzerritarrak: fisikoki hobeto daude, baina egoera administratibo konplexuak dituzte».

Egoera horretan iritsi zen Martina espetxera: Brasildik etorri eta gutxira. Andrazkoak preso egoteak «gaitzespen sozial handiagoa» dakarrela azaldu du: «Etengabe adierazten digute emakumeei lotutako rolak hautsi ditugula: amarena, onarena, ez-biolentoarena... Kartzelako ikastaroak ere generoak baldintzatuta daude, berriro 'onak' izan gaitzen: gurutze puntua egiten ikasi nuen nik». Babes gutxiago dutela ere nabarmendu du: «Emakumezko preso sozial gehienek ez dute inolako babesik: nik bi urte egin nituen bisita bat bera gabe».

Erakunde «totala»

Azken batean, espetxea gizartearen ispilua dela diote eragileek. Urrun dago, ordea: bai kokapenean, bai iruditerian. Martina: «Gizartearen parte gara, baina ikusezinak gara. Kartzela oso arrotza egiten zaio jendeari, baina egiaz oso hurbil dago, eta oso erraza da sartzea». Hori dela eta, Idoia Franco Zubiko elkarteko psikologoarentzat garrantzitsua da sartzeko unea ere prestatzea: «Espikatzen diegu zer aurkituko duten barruan, nolakoa izango den euren bizimodua, zer jarduera izango duten, zer sartu dezaket... Zurrumurruek eragindako beldurrak uxatzeko».

Ildo horretan, Sainz de Rozasek uste du espetxea «erakunde totala» dela: «Presoen bizitzen minutu guztiak kontrolatuta daude: noiz esnatu, noiz jan, zer egin, noiz egon ziegan eta noiz ez... Guztia antolatuta dago, tratamenduaren eta erregimenaren arabera». Zehaztu du Hego Euskal Herrian indarrean den espetxe legedia gizarteratzean oinarritzen dela: «Indibidualizazio zientifikoaren ideien arabera, aztertu egiten da preso bakoitza zer egoeratan dagoen bai gizartean, bai indibidualki, eta horren arabera tratamendu bat ematen zaio, hau da, erregimen bat ezartzen zaio. Baina hori teoria da; askatasunaz gabetzeko daukagun beste justifikazioa da mendekua: ordainaraztea. Gizarteak ez du justutzat jotzen kalte bat egin duen pertsona bat kalean egotea gizarteratuta dagoelako».

Martinaren ustez, birgizarteratzearen ideia «falazia bat» da: «Huts eginiko proiektu bat da kartzela. Ez dizute inoiz galdetzen zein ibilbide izan duzun, zer gertatu zaizun, nola iritsi zaren delitua egitera; delitu bat da, eta kito. Hori aztertuko balute, ohartuko liriateke barruan dagoen

jende asko ez litzatekeela hor egon behar, baizik eta tratamendu psikologikoarekin edo psikiatriko batean, edo desintoxikazio lan bat egiten».

Kontrakoa gertatzen da, Aia medikuak ohartarazi duenez: «Ikerketa batzuek frogatu dute droga mendekoen kontsumoa handitu egiten dela kartzelan». Bistan baita espetxeetan droga dagoela. Gonzalez: «Harrigarria da, drogak debekatuta daudelako eta kartzela eremu itxia delako. Baina sartzen dira; ez dago normalizatuta, baina bai onartuta, GIBaren prebentzio programetan xiringak banatzeraino». Legez kanpoko drogek eragiten duten asalduraren aurrean, Martinak gogoratu du legezkoak ere ohikoak direla: «Gozokiak bezala banatzen dituzte ibuprofenoa, valiuma, tranxiliuma eta halakoak; nolabait ere, presoek gerrarik ez emateko modu bat da».

Osasuna, baldintzatuta

Arartekoaren txostenek agerian utzi dute espetxean prebalentzia handiagoa dutela gaixotasunek, bereziki, buruko gaitzek. Osabideak elkarteak presoen osasun eskubideen inguruko eztabaida ireki nahi du; izan ere, osasun langileentzat, ia jorratu gabeko esparrua da, Aiaren hitzetan: «Ez dago kartzelako populazioaren osasun premien inguruko ikerketa sendorik. Medikuntzaren barruan, protokolo eta kontsentsu gutxien duen arloa da».

Horrek ondorio larriak ditu, adibidez, preso eriak espetxetik ateratzeko garaian: «Legeak dio gaitz larriak edo sendaezinak dituztenak irten daitezkeela, eta instrukzio batek terminaltasunaren irizpidea jarri du: epaileek jakin nahi dute zenbat denbora duen hilko den preso, baina ez dago hori jakiterik, eta ez da irizpide mediko bat. Erabaki horiek hartzea osasun profesionali dagokie, ez espetxe erakundeei; arazoa da ez dagoela kontsentsurik irizpideen inguruan, eta hori aldatzeko ahalduntzea falta zaigula profesionaloi».

Hala, preso asko hiltzen dira kartzelan, eta bakarrik. Gaindosien ondorioz hiltzen dira batzuk, edo beren buruaz beste eginda —suizidio tasa kanpokoaren boskoitza da barruan—. Baina, batik bat, eritasunen ondorioz. Osasun egoera konplexuez mintzatu da Aia: «Bazterketa soziala eta osasuna oso lotuta daude: jende bat birrinduta dago; txarto heltzen dira kartzelara, era askotako patologiekin, eta kartzelak euren egoera okertzen du. Baina ez dira heriotza naturalak: oraindik hiesaz hiltzen dira, edo garaiz diagnostikatu gabeko gaitzekin. Aldagai asko daude, baina funtsean, arazo bat dago: itxita egoteak lehentasuna duela. Gaixotasunak arreta eskatzen du, eta espetxeak mugak jartzen dizkio zaintzari».

Areago, kartzelak berak gaixotu egiten duela uste dute eragileek. Sainz de Rozas: «Esparru patologikoa da». Aia: «Indarkeria matxistak osasun fisiko zein mentalean dakartzan ondorioetan pentsa daiteke kartzela ulertzeko: kontrol eta menpekotasun mekanismo berdinak erabiltzen ditu. Egiturak berak gaixotzen du. Osasun publikoko arazo larritzat hartu beharko litzateke».

Kaltea, gainera, epe luzerakoa da, Martinaren hitzek erakusten dutenez: «Ez dakit inoiz gaudituko dudana kartzelako esperientzia». Duela sei urte atera zen espetxetik, baina oraindik pisu handia du han barneratutako gutxiagotasunak: «Hiru aldiz saiatu nintzen neure burua hiltzen. Oso lotsatuta nengoen, uste nuen hura amaiera zela... Apurka ari naiz hobera egiten, baina, halere, gutxiago sentitzen naiz, porrot eginda. Garrantzitsua ez izatearen sententzia ere zaila da: mundu guztiak bere bizitzarekin jarraitu du, eta zuk uste zenuen haien zentzua ezinbestekoa zirela».

Mouescak erantsi du espetxeko giroak ere ez duela laguntzen. Botere harremanak aipatu ditu, beldurra, eta indarkeria: «Zutik iraun nahi baduzu, dinamika bortitzak erabili behar dituzu egunero. Birgizarteratzea gezur handia da: presondegiko bizimoduak ez ditu justuki sortzen gero pertsona ona izateko tresnak. Ikasten duzu mesfidatzen, harreman gogorak izaten, bihotza irekia sekula ez ukaiten». Antzera mintzatu da Sainz de Rozas: «Ez da elkarbizitza asertibo bat. Gizarteratzea da gizartean bizitzeko moduko norbanako bat izatea, aberasgarria, kritikoa, solidarioa... Aldiz, espetxean mendekotasuna bultzatzen da: 'Ez sartu liskarretan'».

Eskumenei begira

Dena den, espetxeak kudeatzeko eskumenari buruzko eztabaidan, sistema aldatzeko aukera ikusten dute Araba, Bizkai eta Gipuzkoako eragileek. Aiaren ustez, osasun arreta abiapuntu bat da, baina ez nahikoa: «Kartzelako leihoak ireki behar dira. Transferentziak kontrol eta gardentasun handiagoa ekarri behar du. Osasuna giltza bat da, giza eskubide bat delako, eta adostasun handia duelako: gaixoei arretarako eskubidea dute».

Baina eredu aldaketarik ekarriko al du eskumenak? Eusko Jaurlaritzari kudeaketarako proposamen bat igorri dio aditu talde batek, eta tartean izan da Sainz de Rozas. Besteak beste, hirugarren gradua «askoz gehiago» erabiltzea planteatu dute, eta, horretarako, hirugarren sektorearekiko lankidetzatza estutzea eta gizarteratze zentroak lehenestea: «Erronka ez da kartzela hobe lortzea, baizik eta kartzela baino hobe den zerbait sortzea».